

## 2. Zergatik antropologia? Ikuspegi holistikoa

Antropologiaz gain, beste jakintzagai askok ere gizakiak dituzte aztergai. Biologoek, genetistek eta fisiologoek, esaterako, gure animalia-izaera aztertzen dute. Medikuntzan soilik, ehundaka espezialistak giza gorputza aztertzen dihardute; eta psikiatra eta psikologoak giza adimen eta arimaren funtsaren bila dabilta. Beste jakintzagai askok ere –soziologia, giza geografia, gizarte-psikologia, historia, zientzia politikoa, ekonomia, hizkuntzalaritza, teologia, filosofia, musikologia, artea, literatura eta arkitektura, besteak beste– kulturari, adimenari eta estetikari dagokienez dugun jokamoldea aztertzen dute. Zein da, bada, antropologiaren ezaugarri bereizgarria?

Hizpide dugun jakintzagaia besteetatik bereizten duena bere izaera orokorra eta erkatzailea da, hau da, bere ikuspegi holistikoa. Beste jakintzagai batzuek giza esperientziaren zati jakin bat edo gure garapen biologiko eta kulturaleko garai edo aldi zehatz bat besterik ez dute jorratzen. Antropologiaren aurkikuntzak, ordea, ez dira populazio, arraza, tribu, klase, nazio, garai edo toki bakar batez arduratzen. Antropologoek giza talde bati edo zibilizazio jakin bati buruzko azterketatik ateratako ondorioak beste talde edo zibilizazioei buruzko azterketetatik ateratakoekin erkatu beharra nabarmentzen dute etengabe. Honela, antropologiaren garrantzia tribu, arraza, nazio edo kultura jakin baten interesz gaindikoa da. Antropologiaren ikuspegitik, herri eta kultura guztiek garrantzi berdina dute aztergai gisa. Horregatik, antropologiak aurre egiten die bere burua giza generoaren ordezkari bakartzat dutenei, aurrerapenaren gailurrean daudela diotenei edota Jainkoak edo Historiak mundua beren eredura itxuratzeko aukeratuak direla uste dutenei.

Darabilen eredu holistikoaren eta ikuspegi biologiko, arkeologiko, hizkuntzazko eta kulturazkoaren ondorioz, funtsezko auzi askoren giltza da antropologia. Marvin Harrisek dioenez, kulturen bilakaeran arrazaren garrantzia aztertzea edota arrazakeria, sexismo, zapalkuntza, pobrezia edo nazioarteko azpigarapen gisara aurkezten zaizkigun gizarte-desberdintasunen jatorria ulertzea ahalbidetzen digu antropologiak.